

«Udal Gobernuak ez da inorekin akordioak lortzeko gai»

Jose Angel Encinasek 28 urte ditu eta PPko zinegotzia da. Donostia-rra da, eta igaro berri diren Santo Tomas eta San Sebastian festak ditu gogokoen. Ez daki euskaraz, baina esan digunez, ikasten ari da, "poliki poliki". Udal politikaz aritu gara berarekin.

Aitziber Iartza

PPren udal taldeko zinegotzi berri bakarra zara. Nola hasi da agintaldia?

Ilusio handiz, ardura askorekin eta, batez ere, ikasteko eta donostiarren alde lan egiteko gogoz. Zorte ikaragarria izan dut, eta jada sendotua dagoen talde batean sartu naiz, jende zoragarri osatutako taldean. Kide horiek, bai maila politikoan bai humanoan, asko irakats diezadakete.

Aurreko agintaldian Lasarten izan zinen zinegotzi. Zer dela-eta aldaketa?

Alderdi politiko batean zaudenean, alderdiaren beharretara moldatu behar duzu. Alderdiaren ustez eraginkorren izan zaitezkeen tokian egon behar duzu.

Aldaketari berari dagokionez, ezberdintasunak nabari dira. Lasarten Udal Gobernuan geunden PSOekin, eta gai ginen akordioak lortzeko. Donostian horrelakoak egiteko ilusioz nentorren, baina ez

da hain erraza. Ez dut halako jarrerarik somatu Udal Gobernuaren aldetik. Bestetik, logikoki, Donostiako udal jardunak beste tamaina bat du eta egokitu beharra duzu.

Zer moduz moldatzen zara oposizio-

an? Aldaketa handia al da hori ere?

Alderdi guztien helburua gobernuan egotea da, proposamenak aurrera eramateko aukera ematen baitu horrek. Baina oposizioan egonda, berdin-berdin jarraitu behar da lanean.

PPren udal taldean arlo ekonomikoaz arduratzen zara. Zer iruditu zaizu PSE-EEk aurkeztutako aurrekontu proiektua?

Uste dugu azken urteetan ez dela kudeaketa egokiena egin. 2003koak luzatutako aurrekontuak dira, eta hori ez da hiri bateko gobernu zuzentzeko modurik egokiena. 2004an Donostiari gerta dakiokeen gauzarik onena Udalak aurrekontuak izatea da. Hala, proiektuak egiteko aukera legoke. PPK behin eta berriro agertu du aurrekontuak egiterakoan parte hartzeko asmoa, borondaterik onenarekin. Horretarako, noski, gure ildo nagusiak baditugu eta mahai gainean jarri ditugu.

Azken urteetan ez da kudeaketarik egokiena egin

Aurrekontuak berriro luzatzea ez dela gomendagarria aipatu duzu. Zein aukera ikusten dituzu aurrekontuen inguruan akordioa lortzeko?

Éz gaude egoerarik onenean, luzatutako aurrekontuek ez baitute proiektu berriari bide emateko aukerarik ematen. PPK eskua zabalik du, eta Udal Gobernuarekin bilerak egitearen zain gaude. Hilaren 7an Udal Gobernuarekin bildu ginen aurrekontuen inguruko gure ildo nagusiak azaltzeko. Udal Gobernuaren aldetik isiltasuna baino ez dugu jaso. Berriro ere esaten diet prest gaudela biltzeko, eta bide honetan aurrera egiteko. Baina ez gara bakarrik. Koalizio nazionalistak ere, beste ikuspegi batetik, eskua luzatu dio Udal Gobernuari. Udal Gobernuak ez da inorekin akordioak lortzeko gai, eta ez dakigu zergatik. Udal Gobernuak proposatu diguna zera da: guk inbertsioen zerrenda bat ematea eta beraiek erabakitzea zeintzuk onartuko dituzten, guk aurrekontuei baiezkota ematearen truke. Gure ustez, serioagoak izan behar dugu. Ohiko aurrezpena —ohiko sarreraren eta gastuen arteko aldea— 10 milioi euro gutxitu da bi urtetan, zergak aurten %12,5 igo diren arren. Beraz, horrek kudeaketa txarra adierazten du.

Arlo ekonomikoarekin jarraituz, agintaldi honetako udalbatzaren lehen osoko bilkuran zinegotzien soldatak ikaragarri igoatea aho batez erabaki zenuten. Ez al da esanguratsua adostasuna soilik horrelako gaietan lortzea?

Ez dakit esanguratsua den edo ez. Esan didate-nez, gaia aurreko batean atzeratu egin zen, eta gero alderdi guztien artean hitz eginda, Udalaren antolaketari berria erabaki zen. Akordio horrek oinarritzakoa izan beharko luke, akordioak lortzea posible dela jakiteko. Erabateko akordioak lortzeko guztion borondatea behar da, eta guk, behintzat, borondate hori badugu.

Auditx

Akularren garapen jasangarria nola egin aztertzen ari gara

Auzoen ardura ere baduzu. Auzo batzuek historikoki baztertuta egon direla eta daudela salatu dute. Zure ustez hala al da?

Erdigunetik urrunen dauden auzoak ez daude erdigunea bezain ongi zainduta. Al-

tzako, Bidebietako, Egiako, Txomineko, Loiolako...jendeak erdialdekoak bezain beste merezi du, eta Udal Gobernuak hiriaren zati horien garapena bazterrean utzia du. Auzoen arteko ezberdintasuna leuntzeko, borondate politikoa besterik ez da behar. Guretzat auzo batzuk lehen-tasunezkoak dira: Altza, Intxaurren, Bidebieta, Loiola...Urtero inbertsionarako dirua alde batera edo bestera bidera daitete eta, beraz, ez dago sekreturik.

Azken urteetan auzo berriak sortu dira eta aurreikuspenen arabera, etorkizunean ere sortuko dira, esaterako, Auditx Akular. Altza bezalako auzo batean, halako beharrak eta halako dentsitatea dituen, hainbeste etxebizitza egitea egokia al da?

Auzo berriak sortzea ona da, baina horretarako ekipamenduak ere sortu behar dira. Hasieran alkateak Auditx Akular egitea proposatu zuenean, 'Altza II' egitea proposatu zuen. Guk argi utzi genuen lehenik sarbideak, ekipamenduak...sortu behar direla eta gero etxebizitza. Donostiak lur gutxi du, eta horri errerantzarritasuna atera behar zaio, baina modu egokian.

Hala ere, Auditx Akularren inguruan akordioa lortu duzue.

Akordio horren arabera, guztiok inguru hori nola garatu aztertuko dugu. Horretan gaude. Hasieran proiektu itxia jarri ziguten mahai gainean, eta orain garapen jasangarria nola egin aztertzen ari gara.

Espainiako hauteskundeak hurbiltzen ari dira. Zein da PPrek helburua Euskal Autonomia Erkidegoan?

PPK, gutxienez, 2000ko emaitzak errepikatu nahi ditu. Emaitza horiekin PPK gehien-go osoa lor zezan lagundu genuen, eta orain ere hori lortu nahi dugu. Aukerarik onena gara euskal herritarren interesak Madrilan ordezkatzeko, guk proposamenez hitz egiten baitugu, ez planez, ez etengabeko aldarrikapenez, ez istorio-arraroez. Hori garrantzitsua da.

